

## egunekoa

Joxan Azpirotz Etxarri

(Larraungo alkate eta LABeko kidea)

# Ilbelta euskararentzat

tsail honetan bi gertakari ditugu azpimarragarri, biak alaba biak euskararen etorkizunearan eragin ikaragarri kaltegarria izanen dutenak Nafarroa Garaian:

1. Otsailaren 10ean Sanzen Gobernuak onartu zuen bigarren aldiz eta 12an buletinean argitaratu euskararen erabilera Administrazioan arautuko duen Dekretua (Epaitegiak aurreko bertsioa baliogabetu egin baitzuen prozedura akatsengatik).

2. UPNk eta PSNk bultzaturik Parlamentuan Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskararen erabilera arautu nahi duen Lege proposamena osatzeari ekin diote.

### Euskararen Dekretua

Honetaz nahikoa hitz egin eta idatzi da lehendik ere.

UPNk Epaitegiak aipaturako prozedura akatsak zuzendu ditu, hain zuzen ere Euskararen Kontseiluaren aurretiko informarean prezeptibitatea, horretarako Kontseilua erabat berritu behar izan badu ere, euskara eta euskal kulturaren zeharo legoak edota behatzez izendaturiko funtzionario esanekoak diren kontseilariak osatuz edo, hobeki esan, desitxuraturik.

Ados nago Iñigo Santxo abokatuak eginiko salaketarekin, hau da, Nafarroako Epaitegiak Dekretua baliogabetu zuenean prozedura akatsengatik, mesedea egin zion Gobernuaren asmoari, ez zelako sartu Dekretuaren mamiarekin eta orain berriz honen kontrako prozesu judiziala berriro zerotik hasi beharko duelako, bitartean bi urte galdu ditugularik.

Kontua da Dekretuan ez dutela aldatu ezta komatxo bat ere, soilik aipamen berri bat argitzeko ele bitan daudden seinaleak eta abar gaztelania hutsez jarri ahal izateko diru partidak

### EUSKARAREN DEKRETUA

**Epaitegiak baliogabetu egingen du Dekretua, baina UPNren asmoa da indarrean dirauen bitartean ahalik eta kalte handiena egitea**

### NUP ETA EUSKARA

**UPNk eta PSNk bat egin dute 'de facto', unibertsitatean euskararen normalizazioaren aurka**

prestatuko direla Nafarroako aurrekontuetan. Nire ustez, UPNkoek bazekiten eta badakite epaitegiak Dekretuaren mamian sartzen denean baliogabetu egingen duela berau, baina beren asmoa da indarrean dagoen denbora honetan ahal den eta kalte gehien egitea eta nafar gizartearen euskararen alde hedatzen ari den jarrera eta tendentzia aldatzen saiatzea. Bestela ez da posible adibidez 18. artikularen 3. puntua bere horretan mantentzea. Puntu horrek urratu egiten du langileriaren mugikortasunerako eskubidea, zeren funtzio publikoan euskarazko lanpostu batera sartu direnei ukatu egin nahi zaie erdarazko plazetara konkurtsatzea; horren ondorioen adibide bitxi bat Hezkuntza arloan gertatuko litzateke; Irakaskuntza publikoko irakasleak Espainiar estatuko funtzionario dozentearen estatusa daukate. Lekualdatze Lehiaketan parte har dezake bakoitzak bere espezialitatean edozein komunitate autonomotara, baina Dekretuaren interpreta-

zio zuzena eginez, Biologiako plaza euskaraz atera duen bat ezinen litzateke lehiatu Tafallako Institutuko plaza batera, baina bai, esaterako, Badajozera. Beraz, Lekarotzeko plaza batetik Tafallara joan ahal izateko bidea litzateke lehenengo Badajozen plaza bat lortu eta gero handik Tafallara. Tori Kafka nabarrismoaren bertsioan!

Hau adibide bat besterik ez da, zeren oro har Dekretu honek *Vasqueuren Legea* bera ere urratu egiten du hainbat puntutan.

### NUPerako Euskara Lege proposamena

Hasteko, Nafarroako Gobernuak, Parlamentua instrumentalizaturik, Unibertsitate Publikoan Euskara Lege bat ezarri nahi izatea bera, Unibertsitatearen autonomia printzipioaren kontra-ko eraso da.

Errealitatea, ordea, gordinagoa da. Unibertsitateko sektore batzuentzat, errektorea buru, euskarak NUPeko estatutuaren duen estatus koofizialak enbarazu egiten die; horregatik bota ditu atzera sektore horrek behin eta berriz unibertsitatean hizkuntza normalizatorako batzordeak aurkeztutako normalizazio plan guztiak, zeren azken finean batzorde horiek eginiko *plangintzak*, aurrenekoak aurrerakoiagoak eta azkenekoak atzerakoiagoak, euskararen *normalizazio* planak ziren, eta hau bera da sektore horrek ezabatu asmo duena, hots, euskararen *normalizazioa* unibertsitate publikoan.

Eta hau da nafarron zoritxarra, asmo horrekin bat egin dute *de facto* UPNk eta PSNk. Irakurtzen baditugu UPNren Lege proposamena eta PSNrena, nabarmena da bien arteko funtsaren antza. Bietan euskararen presentzia akademikoa zerbait

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

## zutabea

Ana Urkiza



### Arabaren bagare

**A**rabaren bagare, Gipuzkun bagera, Xiberun bagire, ta Bizkaian bagara, baita ere Lapurdi ta Nafarran... kantatzen irakatsi ziguteneko garaiak etorri zaizkit burura Udalbiltzaren azken aldizkariak Aberri Egunari buruz dakarrena irakurtzean.

Unibertsitatean heldu nintzen arte, Historia (letra handiz) zer den galdetu izan balidate, «idatzita dagoena» dela erantzungo nukeela pentsatu izan dut maiz: hau da, alda ezin daitekeena, egia (idatzita dagoenari egiazkotasun balioa ematen baitiot nik), oroimena eta iragana. Uste horretan, *Arabaren bagare* eta antzeko kantua eta irakatsien bidez, gure izaera edo nortasuna (eta nazio izateko eskubidea) lurraldetasunak bermatzen zuela ikasi genuen.

Unibertsitatean, ostera, egiaren, oroimenaren eta iraganaren habe asko erori zitzaizkigun lurrera, Historia idazten zuten letrak ez zirela beti hain handiak demostratu baitziguten. Hori dela eta, oroimena eta iragana, eta, beraz, idatzita zegoen oro aldagarria edo aldatua izan dela esan zigutenean, gure *nazio* edo *aberri* kontzeptu haiek nola zehazten ziren galdetzeki ekin genion. Eta gogoratzen dut politikari eta legegizon den irakasle batek zera erantzun zigula. Nazio kontzeptua bi elementuk osatzen dutela: lurraldetasunak, batetik, eta, bestetik, lurralde horren berezitasunen batek (gure kasuan, kulturaz edo eta batez ere, hizkuntzaz mintza gintezkeelarik).

Gurean, hizkuntza elementu bereizgarri duguna argi dago (nahiz eta berezitasun hori beti hala denik ez den onartu nahi izan), baina arazoa lurraldetasuna zehaztean daukagu. Historia eta Geografia (letra handiz) modu ezberdinetara idatzi izan da, eta guk, euskal biztanleok, modu ezberdinetara ikasi dugu. Eta demokraziaren ondortiko alderdiek ere Historia eta Geografiaren irakurketa ezberdinak txertatu dituzte euren diskurtso politikoan.

Udalbiltzak aurtengo Aberri Egunerako egingen duen deia, beraz, «alderdikieretatik ihes egin eta denok batera (herriak batera) nazio eskubidea aldarrikatzeko» da, baina nago, dei horren azpian, premia bat dagoela, eta zera da: lurraldetasun kontzeptua, lehenik eta behin, hiritarrek zehatz dezaten; eta zer pentsatua eman dit, gure nazio kontzeptuaren ahuleziak konturatzean.

## seiko urrea

Juan Ignacio Perez Iglesias



### Lege bereziak

ste dut zio asko egongo direla UPNk eta PSNk unibertsitatean euskararen erabilera arautzeko egin nahi duten legearen aurka agertzeko. Ondo baino hobeto dakigu bi alderdion asmoak murriztaileak direla, euskaraz egin daitekeen irakats-eskaintza mugatzea baita, zoritxarrez, legearen helburu nagusia. Hala ere, zorrotz jokatu beharko genuke gure argudio larroak gauzatzekoan, fun-

tsa eta prozedura ondo zedarritu beharko bailirateke asmo horiek kritikatzekoan.

Lege egitasmoaren edukia gauza bat da, eta beste bat, oso bestelakoa, horretarako aukeratu duten bidea. Izan ere, bidezkoa eta egokia da legebiltzar batek unibertsitate arautzeko legeak egitea. Azken batean, legebiltzarra da baliabide publikoak unibertsitatearen eskura jartzen dituenak, eta hori horrela izanik, bera da diru horren

erabilerearen azken erantzulea. Bestalde, unibertsitatearena zerbitzu publikoa den neurrian, herri ordezkariak dagokie zerbitzu horren ildo, ezaugarri, eta helburu nagusiak finkatzea.

Aurreko larroak irakurrita, unibertsitate autonomiaren inguruko zalantzak sor daizkioke irakurleari. Baina unibertsitate autonomia beste gauza bat da. Barne antolatetari, baliabideen erabilereari, eta irakasleak aukeratzeko ahalmenari egokitu beharko litzateke autonomia, baina ez eman behar den zerbitzuaren ezaugarri nagusiei. Eta hizkuntzarena kontu garrantzitsua denez, unibertsitariok ez gara nor euskaraz unibertsitate irakaskuntzan izan behar duen tokiaren inguruan gure kabuz erabakiak hartzeko.

Honaino iritsi garelarik, beste bereizketa bat egin behar da orain. Izan ere, gauza bat da, EAEkoaren antzera, unibertsitate-rako lege orokor bat egin nahi izatea eta lege horretan euskararen erabilereari dagozkion kontuak sartzea, eta beste bat, erabat desberdina, unibertsitatean euskararen erabilera arautzeko lege berezi bat egin nahi izatea. Berezitasun hori baita, hain zuzen ere, legearen helburuen adierazlerik onena. Haren bitartez adierazi nahi baititugute euskara NUPen normaltasunez erabiltzeko itxaropena galdu behar dugula.

Legea bultzatu dutenek badakite lege hori txarra izango dela euskaldunontzat. Ez dakite edo ez dute jakin nahi unibertsitatearentzat berarentzat ere kaltegarria izango dela.